

IRRJEN **LAGUNAK** **KIUBA**



**MARTINBER
ETA LAGUN** • Kultura

**Irri egiteko,
beste
bi ikuskizun**

Herriz herri poza eta alaitasuna, umorea eta kolorea zabaltzea da Irrien Lagunen asmoa. Pupu eta Lore jaio zirenean elkartu ziren, jaioberriak hazi eta hezteko. Balio hezitzaileak gogoran izanik, haurrak entretenitzea ere izan da haien asmoa, hasieratik. Hala, hainbat ikuskizun sortu dituzte: *Kultura plazara, Eguzkiaren bidaiak* eta *Leihotik mundura*, adibidez.

Aurten, beste bi ikuskizun prestatu dituzte, herriz herri eskaintzeko: *Laguntasanaren sekretuak* eta *Mundutik plazara, plazatik mundura*.

Lehen ikuskizuneko istorioa parke batean gertatzen da. Pirritxek egin



Martin Beltza eta Tiritatxo.

beharrak zituela eta, Tiritatxorekin utzi ditu Pupu eta Lore. Erizainak larrialdiko dei bat jaso du, eta joan egin behar izan du, bat-batean. Hala, Martinbertso, Ane pirata, Largabista eta Marikalanbreren zaintzapean geratu dira bi txikiak. Arratsaldea lasai zihoran, Purrusta anderea agertu den arte. Bigarren ikuskizunean, berriz, Martinberren lehengusu kubatarra ezağutuko dute hurrek: Martin Beltza.

Bihar, Zarautzen, Gipuzkoan izango duzue Martin Beltza ezağutzeko aukera, 17:00etan. *Laguntasanaren sekretuak* ikuskizunaren hurrengo emanaldia, berriz, Iruñeko Anaitasuna pilotalekuan eskainiko dute, datorren larunbatean, 12:00etan.

DENBORA-PASAK

1. Lotu puntuak

Marrazkia amaitzeko, azken ukituak ematea falta zaio Anderri. **Jarraitu zenbakien segida, marrazkia osatzeko.**



Erantzunak

1.-Hertza. 2.-Bisera, koaderno eta ordengailu dira falta diren hitzak.

2. Osatu esaldiak

Hitz gutxi batzuk jarri, eta idazlana amaitua izango du Edurnek.

Zein hitz jarri behar ditu?

Gaur eguzkiak goğor jotzen duenez, jantzi dut kalera irtetzeko.
Olerkiak idaztea asko gustatzen zait nire txikian.
Gure zaharra izorratu zaigunez, bihar bertan goaz berria erostera.
_____ _____ _____